emʌn ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

# Euskaltzaindia




# HIZTEGI BATUA 2010

## HIZTEGI BATUA, AZKEN ARGITARALDIA

Hiztegi Batua Euskaltzaindiak **euskal hitzen forma arautuak** argitara emateko tresna da. Bere azken argitaraldia, hirugarrena, 2010eko azaroaren 26an aurkeztu zen.

Euskaltzaindia, bere hiztegiaren lehen itzulia 2000. urteko martxoaren 31n bukatu zuenetik, etengabe ari da hura aberasten eta zorrozten. Sarean dago jada Hiztegi Batua, guztion eskura, nork zer jakin nahi duen egoki erraztuta.

Orain eskaintzen dena paperezkoa da, aurrekoaren laguntzaile eta osagarri. On-line hiztegia apirilerako-edo eguneratuko da 3. argitaraldiko hitzekin.

eman ta zabal zazu

# HIZTEGI BATUAREN IZAERA ETA XEDEA

## Non kokatzen da?

- Euskaltzaindiaren egitasmoen artean
- Euskara batuaren ibilbidean

## Zer dauka?

- Euskal hitzen forma estandarra
- Euskaltzaindiak lehendik argitaratuak zituen hitz-zerrenda eta hiztegiak
- Literatura-tradizioan ongi finkatutako hitzak
- Azken hiruzpalau hamarkadetan finkatuz joan direnak

## Zer ez dauka?

- Euskara idatzian lekukotasunik ez duten hitzak
- Teknizismoak
- Aspaldi baztertuta geratu ziren hitzak
- Oraingoz euskaran errotu ez diren arrotz-hitzak

eman ta zabal zazu

## EUSKALTZAINDIAREN IRIZPIDEAK

Euskaltzaindiak honako irizpideak erabili ditu hitzei buruzko erabakiak hartzeko:

-Tradizio idatziko eta egungo erabilera kontuan izatea.

-Forma hedatuenak hobestea.

-Gutxienekoak betetzen dituzten maileguak onartzea eta bestela forma lehiakideak ematea.

-Segurua ez dena ez aipatzea.

-Hitz dialektalei markak ezarri, baina erabilera bultzatzea.

-"h" (hobetsi) eta "e" (erabili) markak gehitzea.

-Kategoria gramatikalak eta aditz-erregimenak.

- Adierak eta adibideak.

## HIZTEGIAREN EDUKIA, ZENBAKITAN

2008ko abenduan kaleratu zen 2. argitaraldiko Hiztegi Batuak 27.786 sarrera eta 4.165 azpisarrera zituen.

Oraingo honek, berriz, **36.016 sarrera eta 6.052 azpisarrera**, hau da, bi urtean %29,6 hazi da sarreratan eta %45,3 azpisarreratan.

Horregatik erabaki da, hain zuzen, Hiztegi Batuaren 3. argitaraldi hau kaleratzea.

# INFORMAZIO GEHIAGO

Hiztegi Batuan kontsultak egiteko (laster eguneratuko dena):
http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua




Hona hiztegi berria eskuratzeko webgunea:
http://www.euskaltzaindia.net/argitalpenak/hiztegiaketaizendegiak

Hizkuntzari buruzko galderak egiteko:
http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/galdelekua

eman ta zabal zazu

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea